

**2015eko Azaroaren 4an, arratsaldeko 18:00tan San Juaneko txokoan, San Juaneko eta Solagureneko auzobatzarrari hasiera emoten zaio. (guztira persona15 - 5 zinegotzi)**

Lehenengo eta behin alkateak 2011. urtetik hona auzoan egon diren eskaeren berri eta eginda dauzen eta pendiente dagozen gauzen aurkezpena egiten dau:

### **Egin gabe gelditu direnak eta zergaitiak**

- Zubiaren alde bietan espaloia egitea.
- Aisialde gune gehiago. Bariantearen azpian aterpetxua.
- Zubia arteko espaloia. Gestiorik ez URAK arazoak ipintzen dauzelako.
- Aparkalekua eta aisialdi leku bat zubiaren azpian.
- Neurriak garbitasuna aldetik. Asfaltu egingo da lehenengo .
- San Cristobal bihurgunean. Asfaltozko badenak egiteko prest egoanean, kontsulta egin zan hainbat auzotarren artean, eta ezetz.
- Solaguren auzoan farola bat falta zala. Iturrien ingurukoa da lekurik ilunena. Labaderoaren gaineko etxeak be iluntasunean dago.
- Errotonda ondoko kontenedore beilegiaren martxan.
- Ermita txukundu zan auzotarren laguntzagaz eta polito gelditu dala.
- Ludoteka tokiz aldatzearena ere esku artean. Korreos ondoan ere aisigunea. Ez da ikusten ludoteka erakusketa gelan.

### **Auzotarren hartzen dabe berbea**

- Falta dan kontenedorea (beilegia) lehen bait lehen ipinteko.
- Arinegi jaisten direla kotxeak. Ea beste zerbait egin daitekeen hori ekiditzeko (Ertzantzari esateko). Arrisku handia dagoela.
- Badenarena ipini behar zan han makina egoalako. Teknikoek dena den ez eban ikusten baden finkoa. Hobesten ebela gomazkoa.
- Solagurenen kableaua lur azpian sartzeko instalazioa eginda dagoelako. Udaletxeak presioa egiteko. Ea nork egin behar dauen. Posible da enpresek esatea udalak egiteko.
- Kableak eurek, bardinak erabili ahal direla. Telefonikak ez dekola arazorike egiteko, baina eskatu behar jakiela ofizialki. Argiena begiratu behar.
- Solagurenen arazoa STOParekin. Txarto ipinita dagoela, eta ez dala ondo ikusten goitik datorren trafikoa. Gai horren inguruko batzar berezia auzotarren artean zeozer ebatzeko (banda sonoroak, semaforoa gorritz ipiten dana arinegi badatoz kotxeak, edo...). Botoidun semaforoa proposatzen da zebra bidean. Oinez bidea egiten bada, gainera, askoz jende gehiago pasauko da hortik.
- Paso peatonala ipinteko Corner tabernaren atzekaldean dagoen pisuen parean.
- Zergaitik ez badena, eta zebra bidea, gainean...
- Solagurenen iturri parean, gero eta zabalagoa dan arrakala dago. Begitu behar dala, osterari erori egingo dala.
- Zergak bardinak badira, interbenzinoa leku danatan egin behar dala.
- Egin direnak ondo egin dira, baina gauza gehiago egin behar dira.
- Garbikuzia egitea Corner tabernaren atzean dauden etxeetan. Garbitzaileek buelta emoten dabe.
- Kamioak Batzeko errotondatik sartzan dira, eta San Juanetik irten. Plaka bat jarri pasoa debekatzeko.
- Farola batzuk dir-dir egiten dabenak, eta beste batzuk itzalita.
- Alkantarilla bat solte dago gurutzetan ta zarata ateratzen dau.
- Espaloia egin arte, errepidea gorritz margoztu bidegorria balitz moduan, eta gomazko almohadillak banatzeko. Herri askotan ikusten dira.
- Granja inguruan zuloak dagozala bidegorrian.
- Arratoiak Araluze aurrean.